



KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA

Ogasun Batzordeak 2014ko abenduaren 11an egindako diktameneko kopuruen arabera, 2015eko ekitaldiko **AURREKONTU OROKORRA**ren proiektuak **34.495.603,78** euroko zenbatekoa du. Proiektu horretan sartu ditugu, UDALAREN aurrekontua (2014 arte AUKEA erakunde autonomoari zegozkion kontusailak barne), **31.525.278,80** eurokoa eta ITURBIDE EGOITZA Erakunde Autonomoaren aurrekontua, **3.537.044,71** eurokoa.

Aurrekontuei buruz indarrean dauden legezko xedapenen arabera egin ditugu Udalaren aurrekontua nahiz Erakunde Autonomoen aurrekontuak, nahiz eta ñabardura hauek egin behar ditugun:

Diru-sarreraren aurreikuspenak kalkulatzeko, aurrekontuaren I, II, III eta V. kapituluetan, 2013ko urtean likidatutako eskubideetatik abiatu gara, itxiera aurrerapenaren datuen arabera, kontuan izanik Ordenantza Fiskaletan sartutako tarifa aldaketak, Udalbatzarrak 2014ko urriaren 21ean hartutako akordioaren arabera, bakarrik ur tasan (\blacktriangle %2ko igoera) eta hirilur izaerako OHZn (\blacktriangle %1eko igoera, balore katastralean eraikuntzaren depreziazioa konpentsatzeko) onartu dira aldaketak.

IV, VI, VII eta VIII. kapitulueterako, oinarritzat hartu dugu orain dagoen informazioa, bai eta beste erakunde batzuek hartutako diru-laguntza konpromisoak ere (Udal Finantzaketako Foru Fondoaren parte-hartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera). Dena den ere, hala badagokio, ekitaldian izan daitezkeen balizko desbideratze negatiboak (batez ere IV.Kapituluko- Inbertsio Errealak Inorentzea, inseguritate maila handien duten sarrerak horiek baitira) kontrolatu beharko ditugu aurrekontuaren exekuzioa berraztertzeko testuinguruan eta, desbideratzearen tamainaren arabera, aurrekontua orekatzea lortu beharko dugu, gastuak murriztuz edo diru-sarreraren igoera osagarri bat bilatuz.

VI. Kapituluak - Ondarea saltzearen aurreikuspenei dagokienez, antzeko hausnarketa egin dugu, izan ere, ondasun higiezinak eta lokalak (Zerrajerakoak eta beste batzuk) saltzeko borondatek datozen estimazioak sartu ditugu, bai eta hirigintza kargetatik eta aprobetxamenduetatik datozen diru-sarrerak ere, guztira 0,29 milioi euro. Aurreikuspenak gauzatzeko, Udaletik kanpoko faktore bat gertatu behar denez aldi berean, hau da, erosketan hirugarren baten interesa edo hirigintza aprobetxamenduak exekutatzeko, Udalak kontrolatzen ez duen aldagaia, eta aurrekontuaren zenbatekoa txiki samarra bada ere, komeni da jarraipena egitea, diru-sarreraren aurrekontuaren exekuzioan desbideratze esanguratsurik ez izateko.

Gastuen atalean, adierazi daiteke nahikoa dela daukagun aurrekontu kopurua zerbitzuak normal funtzionatzetik datozen eta eskatu daitezkeen obligazioak betetzeari erantzuteko. Dena den, nire iritzian, aurrekontua betetzeko arauak eta horiek ematen dituzten malgutasunak ahalbidetzen dute modu nahiko errazekin ekitaldian sortu daitezkeen gastu desbideratzei 2014ko aurrekontuak egokitzeko.

Pertsonal edo langileen kapituluko gastuei dagokienez, horiek kalkulatu ditugu, termino homogeneotan, 2014ko bukaeran indarrean zeuden ordainketei buruz gehikuntzarik izan gabe, hartarako onartutako lege araudian (edo proiektu fasean, 2015erako Estatuko aurrekontuak) aurreikusitakoarekin bat.

Gainerako diru-sarrerekin ezin estali daitezkeen gastuak finantzatzeko, Udalaren aurrekontuan jasota dator mailegu bat eskatzea, 1.067.956,80 eurokoa, eta ITURBIDE EGOITZA erakunde autonomoaren kasurako, beharrezkoa da udalaren ekarpena, 2014ko ekitaldian aurreikusten den defizita estaltzeko, 96.719,73 eurokoa. Diru-sarrera horien bidez aurrekontu biak, UDALARENA eta ITURBIDE EGOITZARENA berdintzea lortu dugu.

2015eko ekitaldirako jasota dagoen aurrekontuetako zorpetze berriko zenbatekoari dagokionez,



1.067.956,80 eurokoa, esan behar dugu, aurreikusitako mailegu berria sinatuko balitz ere (seguruenik egingo ez duguna, izan ere, estimatu dugu ez dugula behar izango mailegu berririk, 2014ko ekitaldiko itxieran soberakinak sortu direlako), legez finkatutako helburuak bete egingo direla, hots, aurrekontua egonkortzekoa, zor publikoarena eta gastu arauarena. Aurrekontua Egonkortzeari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan nahiz garapeneko hurrengo legezko araudian ezarritakoak, besteak beste, Gipuzkoako Diputazioaren Instrukzioak, 2014ko abenduaren 15eko GAO n argitaratu TA, Gipuzkoako Udalei aplikagarria dena, eta 2015erako helburu hauek ezartzen dituen:

- Toki Erakundeei aurrekontu **egonkortasuneko helburuak (zero defizita)**
- **Zor publikoa** (2015erako diru-sarrera arrunten **%95ko muga** eta **%75koa** 2020an betetzeko)
- **Gastuaren araua** (2014ko gastuari buruz **%1,3 gehienezko hazkundera** ezin da gainditu).

Hiru helburu hauek bete direla egiaztatzeko txosnen honekin batera doan agiri osagarrian ikus daiteke.

Gaurko egunez, konpromiso kredituak ditugu, 2015eko ekitaldiaren eta hurrengo ekitaldien kontura onartutakoak, 2.050.101,40€an, hein batean Udalbatzarrak 2010eko urriaren 7an eta 2013ko abenduaren 17an hartutako akordioetatik datozenak, "Polo de Innovación Garai S.Coop." entitatearen kapital ekarpenari buruzkoak; hura ordainduko da baldin eta Eraikuntzen gaineko Zergarengatik edo Hiri OHZrengatik diru-sarrerak sortzen badira, berrikuntza gune horretan, 162.534,51euroan. Onartutako beste konpromiso kreditu batzuk datoz alde zaharreko eraikinetan intsektuak kendu eta termiten izurritea kontrolatzeko zerbitzua adjudikatzeko abian jarritako kontratazio prozeduratik, 5 urteko aldi batez (2014-2018) eta 118.901,86 euroko adjudikazioaz, horietatik 2014ko urte bukaeran 77.286,21 euro konpromiso kredituak dira. Beste proiektu hurrengo urteetako konpromiso atalean eragin esanguratsua daukatenak Takolo-Garaia urbanizazioa, 2015erako 834 mila uro, Udala auzoko urbanizazioa, 438 mila euro, San Josepeko berurbanizazioa, 202 mila euro, best zenbait proiektu (Zarugaldeko mendi hegala eustea, Meatzerrekako errege bidea, Zalduspe-Osinaga zubia), 224 mila euro eta, azkenik, Arima Zubi eta Uribe Auzkoko komunitateei agindutako laguntza, erabilera publikoko zortasuna duen urbanizazio pribatuan egindako hobekuntzengatik, 5,8 mila eurokoa. Hori dena, une honetan kudeatzen ari diren kontratazio espedienteetan lor daitezkeen adjudikazio soberakinen kaltetan gabe..

Halaber, aurrekontuak betetzeko arauak jasota dute 2015ean konpromiso berriak hartzeko aukera, inbertsio proiektu jakin batzuetarako, geroko ekitaldien kontura, hori guztia baldintza honekin, Gipuzkoako toki erakundeen Aurrekontuen gaineko 21/2003 Foru Arauaren 22. artikulua eskatzen dituen baldintzak betetzea. Gaur arte onartutako konpromiso kredituen zenbatekoa ikusirik eta kontuan izanik horietatik ia %100a (termitena izan ezik, gainontzeko denak) 2015eko aurrekontuetan eragina daukatela, berez, 2015eko aurrekontuaren onespenearekin bere finantzazioa bermatuta gelditzen da. Horregatik, 2015ean konpromiso berrietarako jasotako kasuen ezaugarriak kontuan izanik, esan genezake ez dugula espero arazoak egotea konpromiso kredituen finantzaketari aurre egiteko Udalak duen gaitasun ekonomikoari buruz.

Azkenik, adierazi behar dugu, Aurrekontua onartzeko, Udalbatzarraren kideen gehiengo soilaren aldeko botoa behar dela. Aurrekontua onartzeko hasierako akordioa hartu eta gero, jende aurrean erakutsi behar da akordioa, eta gure Lurraldeko Aldizkari Ofizialean eta Udalbatzaren Iragarki Taula Nagusian argitaratu 15 eguneko epean; eta epealdi horretan aztertu ahal izango dute interesdunek eta aurrekontuen aurka egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu.

Jende aurrean erakusteko aldiaren erreklamaziorik jaso ezker, hil bateko epean erabaki beharko ditu Udalak.

Horixe da esateko daukadana, Arrasaten 2014ko abenduaren 11an.

KONTU-HARTZAILEA

2015eko AURREKONTUEN EGONKORTASUNARI BURUZKO HELBURUA -2014/12/10EKO AGINDUA - ZERO DEFIZITA

KONTSOLIDATUTAKO GASTUEN I -VII KAPITULUEN BATURA	33.664.441,89 (*)
KONTSOLIDATUTAKO SARREREN I - VII KAPITULUEN BATURA	33.733.645,98 (*)
	<hr/>
SARRERA ETA GASTUEN ARTEKO ALDEA (0 defizita ez edukitzeko)	69.204,09

(*) kalkuluak erraztearren, ez da KSE eraginetarako doikuntza esanguratzurik egiten

2015erako ZOR MUGA HELBURUAREN BETETZE MAILA - 2014/10/10EKO JARRAIBIDEA - 2015EKO ZORRA 2015EKO SARRERA ARRUNTEN %95a

2015EKO URTE BUKAERARAKO BALIOETSITAKO ZORRA

2015/1/1AN SINATUTAKO MAILEGUETATIK 2015/12/31AN AMORTIZATZEKO GELDITZEN DEN KOPURUA 2.332.253,95

2015EKO MAILEGU BERRIA (nahiz eta aurrekontuetan aurreikusi, ulertzen da ez dela beharrezkoa izango) 0,00

2015/12/31an AMORTIZATZEKE GUZTIRA 2.332.253,95

2015ERAKO (aurrekontuen arabeko datuetatik aterata) kontsolidatutako sarrera arruntak 33.310.934,98

% MAILEGUEN ZORRA / KONTOLIDATUTAKO SARRERA ARRUNTAK 7,00

2015ERAKO GASTU ERREGELAREN ARAUARI BURUZKO BETETZE MAILA

A - 2015 URTEA

1 .Konsolidatutako enplegu finantzarioak (2015eko aurrek. Gastuen I -VII kapituluak)	33.664.441,89
2. III.kapituluaeren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)	-38.288,69
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 1.taula)	-3.292.649,98
- Udala-gastu arrunta	1.133.850,00
- Udala - Kapital gastua	215.500,00
- Aukea (2015erako Udal kontuetan)	0,00
- Iturbide	1.943.299,98
4. Exekutatu gabeko gastuen doiketa(ikus 2.taula)	<u>-1.582.228,77</u>
5. 2015erako GASTU KONPUTAGARRIA	28.751.274,45

B - 2014 URTEA

1 .Konsolidatutako enplegu finantzarioak (2014ko aurrek. Gastuen I -VII kapituluak)	32.119.500,00
2. III.kapituluaeren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)	-50.000,00
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 3.taula)	-3.558.200,00
5. 2014KO GASTU KONPUTAGARRIA	28.511.300,00
6.ONARTUTAKO GEHIKUNTZA %1,3 (2014/12/10eko Gipuzkoako araudia)	370.647,00
7. 2015ERAKO MUGA KUANTITATIBOA	<u>28.881.947,00</u>

8.ARAUDI ALDAKETAN ONARRITUTAKO SARREREN GEHIKUNTZAK (OHZn ETA UREN tarifak izan ezik, gainontzekoak ez dira aldatzen)

- OHZn - zerga tsararen igoerak balio katastralaren depreziazioaren jeitsiera

kopentsatzen du eta ur tasaren igoerak (%2a) kontsumoaren beherakada

kopentsatzen du

0,00

2015erako ARAUDI ALDAKETETAN ONARRITUTAKO SARRERA

GEHIAGOEN BATURA

0,00

C - 2015ERAKO GASTU ERREGELA BETETZEN DELA EGIAZTATZEA

2014 DOITUTAKO GASTU KONPUTAGARRIA

28.511.300,00

(+) %1,3 BAIMENDUTAKO IGOERA

370.647,00

(+) ARAUDI ALDAKETETAN ONARRITUTAKO SARRERA GEHIAGOEN BATURA

0,00

2015ERAKO GASTUAREN MUGA ARAUDIA BETETZEKO

28.881.947,00

2015ERAKO AURREK.ARABERAKO GASTU KONPUTAGARRIA

28.751.274,45

2015EAN GASTU ERREGELA BETETZEKO ALDEA

130.672,55

1.TAULA - 2015EAN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO GAST

1- UDALA - GASTU KORRONTEAK		1.133.850,00
- Diputazioa - partehartzea	10.000,00	
- E.J. - Kultur Ekintzak	6.000,00	
- Diputazioa - Kultur Ekintzak	18.000,00	
- E.J.- Kulturaterako liburuak	11.000,00	
- E.J. - Liburutegien dinamizaziorako	3.000,00	
- E.J. - Ongizateko pertsonalerako laguntzak	40.000,00	
- Diputaz. - Harrera Zerbitzurako laguntzak	7.500,00	
- E.J. - Harrarea Zerbitzurako laguntzak	7.500,00	
- E.J. - Drogomenpekotasunerako laguntzak	28.000,00	
- Diputazioa - etxez etxeko zerb.	220.000,00	
- E.J. - GLL	175.000,00	
- INE - Zentsuaren eguneraketa	350,00	
- HAEE - pertsonal formakuntzarako laguntzak	12.000,00	
- Diputazioa - liburuen errekupezioa	4.000,00	
- Diputazioa - Mendi garbiketa	1.000,00	
- Mankomunitatea - Akeiko mantenua	22.000,00	
- Mankomunitatea - UIEko kanpaina	8.000,00	
- E.J. - Bake epaitegia	5.000,00	
- E.J. - EBPNrako laguntza	32.000,00	
- HABE - Euskaltegia	380.000,00	
- Diputazioa - Euskera	21.000,00	
- Diputación - Gazteria	15.000,00	
- Diputazioa - Emakume arloko jardueretarako	7.500,00	
- Lanbide -Enplegua sustatzeko laguntzak	30.000,00	
- E.J. - Enplegua sustatzeko laguntzak	30.000,00	
- Diputazioa - Enplegua sustatzeko laguntzak	30.000,00	
- Diputazioa - Udako kanpaina	1.000,00	
- Diputazioa - igeriketa kanpaina	9.000,00	
2 - UDALA - KAPITAL GASTUAK		
- VII.Kap. (auzo bideetako ekarpenak izan ezik, gainontzeko denak)		215.500,00
3- ITURBIDE		
- Ustiapenerako laguntzak - hitzartutako tarifak eta ezohiko ekarpena		1.943.299,98
4- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO 2015eko GASTUAK GUZTIRA		<hr/> 3.292.649,98

2.TAULA: EXEKUTATU GABEKO GASTUEN DOIKETA (KONTSOLIDATUA)

EKITALDIA	HASIERAKOA	EXEKUZIOA	%EXEKUZIO MAILA	%EXEK.GABEKO MAILA
2014	35.529.104,61	34.200.000,00	96,26%	3,74%
2013	33.569.096,02	33.162.773,65	98,79%	1,21%
2012	32.241.155,01	29.553.303,05	91,66%	8,34%
	65.810.251,03	62.716.076,70	95,30%	4,70%

2014ko exekuzioa, ekitaldiaren itxierari buruzko balioespenaren arabera

3.TAULA - 2014EAN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO GASTUAK

1. Udal aurrekontuko balioespena	
- Korrontea	1.210.000,00
- Kapital (*)	407.700,00
2. Aukeako likidazioa	10.500,00
3. Iturbideko likidazioa	<u>1.930.000,00</u>
2014ean finantzatutako gastuak GUZTIRA	3.558.200,00

(*)- Diputazioaren laguntzari dagokionez, Takolo-Garaia obraren asfalturako zatia bakarrik sartu da, gainontzekoa 2014ean ez da fakturatu behar